



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2022/01

EGUNA: 2022/01/27

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:35

TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

SESIÓN Nº: 2022/01

DÍA: 27/01/2021

HORA DE INICIO: 19:00

HORA DE FINALIZACIÓN: 19:35

LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue (**Telematikoki**)

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotza udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

EAJ-PNV udal taldea

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

Ezin etorria justifikatzen du:

Iñigo Cambroneru Alkorta

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alkalde**

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue (**Telemáticamente**)

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal Debarren Ahotza

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

Grupo municipal EAJ-PNV

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra

Excusa su asistencia:

Iñigo Cambroneru Alkorta

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Gilen Garcia: Arratsalde on eta ongi etorri. Hasi baino lehen, komentatu nahi dizuet Iñigo Cambronero, EAJko bozeramailea, ez dela egongo gaurko osoko bilkuran, eta, hortaz, bozeramailea Eneritz Gomez izango da.

Bestetik, Aritz Larrañaga, EH Bilduko zinegotzia, etxetik arituko da, eta Skype bidez hartuko du parte.

Eta hirugarrenik, Debako udalerriko soropilak, lorategiak, zuhaitzak eta berdeguneak mantentzeko zerbitzu kontratuaren esleipena urgentziazko aztergai bezala sartzea proposatzen dizuegu.

Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du gaia osoko bilkura honetan aztertzea.

1.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Dekretuak bi multzotan banatuta daude, alde batetik 2021eko Dekretuak, eta bestetik, 2022koak.

Ba al dago zalantzarik edo galderarik?

Pedro Bengoetxea: Bai, nik dauzkatzu hiru puntu edo zalantzak esateko. Lehena da 686. Dekretua, «Historiaurreko bailara» ibilbidearen musealizazio proiektuaren kontzeptualizazioa egitea»

Gilen Garcia: Turismotik egin zen kontratu bat da jakiteko zer estetika edo zer kontzeptu erabiliko ziren musealizazio ibilbide osoan.

Pedro Bengoetxea: Bigarrena 694. da «Udaltzaingoaren administrari laguntzailearen izendapena». Hori zer da Ainhoarekin lotutako zerbait?

Jose Luis Salaberri: Bai. Ainhoa Onaindiaren kontratua urtarrilaren 7an amaitzen zen eta izendapen berri bat egin zaio, oraingo honetan plaza behin betikoz bete arte.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

Gilen Garcia: Buenas tardes, y bienvenidos y bienvenidas. Antes de comenzar, quiero comentaros que Iñigo Cambronero, portavoz del PNV, no estará presente en el pleno de hoy, por lo que la portavoz será Eneritz Gomez.

Por otro lado, Aritz Larrañaga, concejal de EH Bildu, actuará desde casa y participará a través de Skype.

Y en tercer lugar, se propone incluir la adjudicación del contrato de servicios para el mantenimiento de céspedes, jardines, árboles y zonas verdes del municipio de Deba como un asunto de urgencia.

¿Votos a favor?

La Corporación, por unanimidad, aprueba tratar el asunto en esta sesión plenaria..

1.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

Gilen Garcia: Los decretos están separados en dos grupos, por un lado los decretos de 2021, y por otro, los de 2022.

¿Hay alguna duda o pregunta?

Pedro Bengoetxea: Sí, yo tengo tres puntos o dudas para comentar. El primero es el Decreto 686, «Historiaurreko bailara» ibilbidearen musealizazio proiektuaren kontzeptualizazioa egitea»

Gilen Garcia: Se trata de un contrato realizado desde Turismo para conocer qué estética o conceptos se utilizarían a lo largo de todo el recorrido de la musealización

Pedro Bengoetxea: El segundo es el 694, «Udaltzaingoaren administrari laguntzailearen izendapena». ¿Qué es eso? ¿Algo relacionado con Ainhoa?

Jose Luis Salaberri: Sí. El contrato de Ainhoa Onaindia finalizaba el 7 de enero y se le ha realizado un nuevo nombramiento hasta la cobertura definitiva de la plaza.



Pedro Bengoetxea: Eta azkena, hau zerrenda berrikoa, 22. Dekretua, «Debako populazioaren zahartzearen inguruko aurreikuspen eta arreta ereduari buruzko hausnarketa 2031ri begira.»

Gilen Garcia: Hori komentatu genuen prospekzioa zahar egoitza nola egin edo Debarako zer eredu beharko zen jakiteko prospekzioa egitea hemendik hamar urtera zer egoera egon den aztertzeko.

Gilen Garcia: Ba al dago besterik?

Eneritz Gomez: Bai, guk bakarra, urtarrilekoa 2., «Sorozabal pasealekuko eta Nafarroa plazako Telefonikaren zutoinak aldatzeko baimena ukatzea.»

Jose Luis Salaberri: Obra baimena eskatu zen poste horiek aldatzeko eta jarri nahi ziren poste berriak Arau Subsidiarioetan jasotakoarekin bat ez zetoenez, ukatu egin zen obra baimena.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

2.- VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO 2022KO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATEAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Trafiko-isunei buruz emandako Alkatetza dekretuen berri ematen da.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- HERRIKO GUNE ARAUTUETAN IBILGAILUAK APARKATZEAN JABEGO PUBLIKOA ERABILI EDO APROBETXATZEARI BURUZKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza.

Itziar Irizar: Lehengo urtean Ordenantza

Pedro Bengoetxea: Y el último, este de la nueva lista, el Decreto 22, «Debako populazioaren zahartzearen inguruko aurreikuspen eta arreta ereduari buruzko hausnarketa 2031ri begira.»

Gilen Garcia: Se trata de lo que comentamos sobre la prospección para analizar la situación de aquí a diez años para decidir qué tipo de residencia de la tercera edad, o qué modelo se necesitaría para Deba.

Gilen Garcia: ¿Hay algo más?

Eneritz Gomez: Por nuestra parte sólo uno, el número 2 de enero, «Sorozabal pasealekuko eta Nafarroa plazako Telefonikaren zutoinak aldatzeko baimena ukatzea.»

Jose Luis Salaberri: Solicitaron licencia de obras para cambiar dichos postes, y dado que los nuevos postes que se pretendían instalar no se ajustaban a lo recogido en las Normas Subsidiarias, se denegó la autorización de obras.

El Pleno queda enterado.

2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2022.

Se da cuenta de los decretos de Alcaldía sobre multas de tráfico.

El Pleno queda enterado.

3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL MEDIANTE EL ESTACIONAMIENTO DE VEHÍCULOS EN ZONAS REGULADAS DE LA VILLA (OTA).

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: El año pasado se realizó una

honetan eguneraketa garrantzitsua egin zen, eta 2021eko TAO denboraldia baloratzeko azaroaren 2an egin genuen bileran jasotako ekarpenekin 2022rako eguneraketa txiki batzuk egin dira Ordenantzan. Hau urtero errepikatu daitekeen egoera bat da, TAO denboraldiaren ondoren ebaluazio bat egingo da eta Ordenantza aldatzeko beharra atzematen bada, dagokion aldaketa proposatuko da.

Oraingoan proposatzen diren aldaketak nahiko txikiak dira, batez ere zehaztaperen batzuk dira. Adibidez, txartel bakoitzaren izaera zein izango den zehaztea, eta aldaketa handiena 2. sektorean, errota handiko merkaturako aparkalekuan, 2 ordutik 3 ordura aldatzea proposatzen da, eta tasak, ordenantza fiskalen arabera eguneratu dira.

Barne Erregimen Batzordean astelehenean aztertu zen gaia, eta gaur Tokiko Gobernuaren Batzordean aztertu da.

Enrique Salgado: Aurreratzen dut gure jarrera Ordenantzaren aldekoa izango dela, baina zenbait gogoeta egin nahiko genituzke.

Balorazio orokorrari buruz aurkeztu zen txostenaren arabera, positiboa izan dena, trafikoa murriztu egin da eta egoiliarrei lehentasuna eman zaie, baina badaukagu gai bat, denok konturatzen garena: Deban aparkalekuak falta zaizkigu eta plaza berriak bilatzeko aukera bilatu behar dugu.

Kezkatzen gaituen beste gai bat da, udatiarren kexa egon baita, txostenak ez duela bereizten, eta aurtengo txostenari begira, udatiarrak txartelei dagokienez, jakin nahiko genuke zenbat diren jabetzako etxebizitzetakoak, hau da, Deban bigarren bizilekua duten pertsonenak, eta alokairuko etxebizitzetan dauden pertsonenak; izan ere, denak berdin tratatzen ari gara eta egoera desberdina da, batzuek kontribuzioa ordaintzen dute, eta, baliteke errekararekin ordaintzea, eta beste batzuek, berriz, ez dute ordaintzen. Horrela, horietako bakoitzak duen bolumena ezagutuko bagenu, agian beste modu batera kontsideratu beharko genituzke.

actualización importante en esta Ordenanza, y con las aportaciones recogidas en la reunión que mantuvimos el 2 de noviembre para valorar la temporada OTA 2021, se han realizado pequeñas actualizaciones en la Ordenanza para 2022. Esta es una situación que podrá repetirse cada año, tras la temporada OTA se realizará una evaluación y si se detecta la necesidad de modificar la Ordenanza se propondrá la modificación correspondiente.

Las modificaciones que se proponen en esta ocasión son relativamente pequeñas, sobre todo, se trata de algunas precisiones. Por ejemplo, determinar cuál será la naturaleza de cada tarjeta, y la mayor modificación está en el sector 2, en el aparcamiento del mercado de alta rotación, se propone cambiar de 2 a 3 horas, actualizándose las tasas según las ordenanzas fiscales.

El tema se trató en la Comisión de Régimen Interior el lunes y hoy se ha tratado en la Junta de Gobierno Local.

Enrique Salgado: Adelanto desde ahora que nuestra postura va a ser a favor de la Ordenanza, pero nos gustaría hacer algunas de consideraciones.

Según el informe que se presentó sobre la valoración general, que ha sido positiva, y se ha reducido el tráfico y se ha dado prioridad a los residentes, pero hay tema del que somos todos conscientes: nos faltan aparcamientos en Deba y tenemos que buscar la posibilidad de buscar nuevas plazas.

Otro tema que nos preocupa, ya que ha habido queja de los veraneantes, es que el informe no diferencia, y de cara al informe de este año, en relación con las tarjetas udatiarrak, nos gustaría conocer cuantas son de viviendas en propiedad, esto es de personas que tienen segunda residencia en Deba, y cuantos de personas en pisos de alquiler, ya que estamos tratando a todos igual y la situación es diferente, unos pagan contribución, y posiblemente con recargo, mientras que los otros no pagan contribución. Así, si conociésemos el volumen que tiene cada uno de ellos, quizás habría que considerarlos de distinta manera.



Gilen Garcia: Puntualizatzeko aldera, izango litzateke, kopuruaren arabera ea merezi ote den udaliaren unibertso horretan bereiztea. Ez dakit zer punturaino, baina hori ahal dugu hasi begiratzen, aurtengo eskariak aztertu eta ea zein den alokairuan daudenak eta zeintzuk bigarren etxebizitzakoak.

Ba al dago beste ekarpenik?

Eneritz Gomez: Guk ere aldeko botoa emango dugu, baina ados gaude beste balorazio mota bat egin behar denarekin, bai Enriquek komentatzen duena, eta bai egon daitezkeen beste kasuistika batzuk ere aztertzeko.

Gilen Garcia: Oso ondo, eskerrik asko.

Orduan bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkek?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabetza publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantzaren (TAO) aldaketa.

Ordenantzaren testua, akta honen I. eranskinean jasotzen da.

4.- DEBAKO HONDARTZAREN (SANTIAGO ETA LAPARI) ERABILERA ERREGIMENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gilen Garcia: Antxoka zurea da hitza.

Antxoka Elorza: Ordenantza hau Ingurumen eta Zerbitzu Batzordean landu dugu, eta aldaketa honekin egiten dena da orain arte zegoen ordenantza egokitu eta eguneratu.

Ordenantzaren bertan hainbat puntu jasotzen dira, baina arautzen duena, zer kirol egingo diren bertan, garbiketa eta higiezia nolakoa

Gilen Garcia: Para puntualizar, se trataría de analizar si, en función de su número, merece la pena diferenciarse en ese universo de veraneantes. No sé hasta qué punto, pero eso lo podemos empezar a mirar, analizar las solicitudes de este año y ver cuáles son en alquiler y cuáles en segunda vivienda.

¿Hay alguna otra aportación?

Eneritz Gomez: Por nuestra parte, también votaremos a favor, pero estamos de acuerdo en que hay que hacer otro tipo de valoración, tanto de lo que comenta Enrique, como de otras casuísticas posibles.

Gilen Garcia: Muy bien, muchas gracias.

Entonces procedemos a la votación. ¿Votos a favor?

La Corporación, por unanimidad, aprueba la modificación de la ordenanza reguladora de la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local mediante el estacionamiento de vehículos en zonas reguladas de la villa (OTA)

El texto de la ordenanza se recoge en el anexo I de esta acta.

4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DEL RÉGIMEN DE UTILIZACIÓN Y USO EN LA PLAYA DE DEBA (SANTIAGO Y LAPARI).

Gilen Garcia: Antxoka, tienes la palabra.

Antxoka Elorza: esta Ordenanza la hemos trabajado en el seno de la Comisión de Medio Ambiente y Servicios, y lo que se hace con esta modificación es adaptar y actualizar la Ordenanza existente hasta la fecha.

En la Ordenanza se recogen varios puntos, la regulación del baño, qué deportes se podrán practicar, cómo debe ser la limpieza y la

izan behar den, arrantza, animaliak agertuz gero zer tratua eman beharko zaien, eta abar.

Ordenantzatik kanpo gelditu dira surf eskolak eta toldoak. Aipatu, aipatzen dira baina esleipena egin beharko denean, orduan zehaztuko dira bai bati eta bai besteari dagozkien xehetasunak.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik?

Ez, orduan bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Debako hondartzaren (Santiago eta Lapari) erabilera erregimena arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Ordenantzaren testua, akta honen II. eranskinean jasotzen da.

5.- DEBAKO GAZTEEN AISIALDIRAKO LONJAK (GAZTEEN LONJAK) ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gilen Garcia: Itziar, zurea da hitza:

Itziar Irizar: Ordenantza hau landu da Kirol eta Gaztedia Batzordean, eta helburua da lokal horien erabilzaitzaileen eta auzokideen artean elkarbizitza egotea. Hainbat atal eta artikuluz dezentzaren duen ordenantza da, ordutegiak, zaratari eta erabilerari dagozkion gaiak arautzen ditu. Lokalek izan behar dituzten baldintzak, inskribatuta egon beharko dira Udalean, eta abar.

Uste dugu gaia araututa egonda elkarbizitza erraztuko duela.

Gilen Garcia: Ba al dago ekarpenik?

Bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Debako gazteen aisialdirako lonjak (gazteen lonjak) arautzen duen ordenantza.

Ordenantzaren testua, akta honen III. eranskinean jasotzen da.

6.- EUDELEK PROPOSATUTAKO UDALEKO ETA DEBA MUSIKAL PATRONATUKO LANGILEEN SOLDATA IGOERA ONARTZEA,

higiene, la pesca, el trato ante la presencia de animales, etc.

Se han excluido de la Ordenanza las escuelas de surf y toldos. Se mencionan, pero en el momento de la adjudicación se especificarán los detalles correspondientes a unas y otros.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación?

No, entonces procedemos a la votación, ¿votos a favor?

La Corporación, por unanimidad, aprueba la modificación de la ordenanza reguladora del régimen de utilización y uso en la playa de Deba (Santiago y Lapari).

El texto de la ordenanza se recoge en el anexo II de esta acta.

5.- APROBAR, SI PROCEDE, LA ORDENANZA REGULADORA DE LAS LONJAS DE OCIO DE LA JUVENTUD DE DEBA (LONJAS JUVENILES).

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Esta Ordenanza se ha trabajado en el seno del Comité de Deporte y Juventud y tiene por objeto la convivencia entre las personas usuarias de estos locales y sus vecinos y vecinas. Es una ordenanza con varios apartados y bastantes artículos, que regula los horarios, los temas de ruido y uso. Las condiciones que deben tener los locales, que deberán estar inscritos en el Ayuntamiento, etc.

Creemos que regulando el tema se facilitará la convivencia.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación?

Procedemos a la votación, ¿votos a favor?

La Corporación, por unanimidad, aprueba la ordenanza reguladora de las lonjas de ocio de la juventud de Deba (lonjas juveniles)

El texto de la ordenanza se recoge en el anexo III de esta acta.

6.- APROBAR, SI PROCEDE, EL INCREMENTO SALARIAL DE LOS TRABAJADORES DEL AYUNTAMIENTO Y DEL PATRONATO DEBA



HALA BADAGOKIO.

Gilen Garcia: Tokiko Gobernu Batzordean ere landu dugu gau hau. Eudelen lantzen den gaia da, gero Udal bakoitzean onartzen dena. Hortaz, tramite hutsa da eta ez dakit inork ekarpenen bat izango duen.

Ez, bozkatuko dugu hortaz, Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Eudelek proposatutako udaleko eta Deba Musikal Patronatuko langileen soldata igoera.

7.- 27/2022 ALKATETZA DEKRETUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO. ABOKATU ETA PROKURADOREA IZENDATZEA 577/2021 PROZEDURA LABURTURAKO: TAO ZEHAPENA.

Gilen Garcia: Tokiko Gobernu Batzordean azaldu den bezala, hemen bi kontu daude, alde batetik, isuna, Alkatzaren eskumena dena, eta bestetik, TAO Ordenantza bera, Udalbatzari dagokiona. Orduan gaia da Udala ordezkatu eta defendatuko duen prokuradore eta abokatu izendatzea.

Ez badago ekarpenik, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak aho batez, erabakitzen du, berrestea urtarrilaren 25eko 27/2022 Alkatzeta Dekretua, zeinaren bidez abokatu eta prokuradore izendatu ziren Debako Udala ordezkatu eta bere interesak defendatzeko Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiaren aurrean izapidetzen ari den 577/2021 prozedura laburtuan.

8.- GIZARTE-EKIMENEN ENPLEGU-

MUSIKAL PROPUSTO POR EUDEL.

Gilen Garcia: Este tema también lo hemos tratado en la Junta de Gobierno Local. Es un tema que trabaja desde Eudel y luego se aprueba en cada Ayuntamiento. Así, se trata de un mero trámite, y no sé si alguien quiere realizar alguna aportación.

No, entonces procedemos a la votación, ¿votos a favor?

La Corporación, por unanimidad, aprueba el incremento salarial de los trabajadores del Ayuntamiento y del Patronato Deba Musikal propuesto por Eudel.

7.- RATIFICACIÓN, SI PROCEDE, DEL DECRETO DE ALCALDÍA 27/2022. NOMBRAMIENTO DE ABOGADO Y PROCURADOR PARA EL PROCEDIMIENTO ABREVIADO 577/2021: SANCIÓN OTA.

Gilen Garcia: Tal y como se ha expuesto en la Junta de Gobierno Local, aquí hay dos cuestiones, por un lado, la multa, que es competencia de la Alcaldía, y por otro lado, la propia Ordenanza OTA, que corresponde al Pleno. Se trata entonces de designar un procurador y abogado que represente y defienda al Ayuntamiento.

Si no hay ninguna aportación, procederemos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, acuerda, ratificar el Decreto de Alcaldía 27/2022, de 25 de enero, por el que se designó procuradora y abogados para que representen al Ayuntamiento de Deba y defiendan sus intereses en el procedimiento abreviado 577/2021, que se tramita ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de San Sebastián.

8.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO PARA LA

ZENTRO BEREZIENTZAT ETA ARAUTUTAKO GIZARATERATZE - ENPRESENTZAT ERRESERBATURIKO DEBAKO UDALERRIKO SOROPILAK, LORATEGIAK, ZUHAITZAK ETA BERDEGUNEAK MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Gilen Garcia: Gai hau gai zerrendan urgentziaz sartzeko arrazoia da errekerimendua egin zitzaion esleipenduna izan zitekeen enpresari zegokion dokumentazioa aurkez zezan eta gaurko bilerarako deialdia bidali eta gero jaso da enpresaren erantzuna. Aurkeztu den enpresa bakarra izanda behin errekerimendua erantzunda egokia iruditu zaigu gaurko bilera aztertzea gaia, hurrengo saioari itxaron gabe.

Esleipenaren datu esanguratsuenak honako hiru izango lirateke:

Batetik, esleipenduna, Gureak Berdea, SLU enpresa izango litzatekeela.

Kontratuaren iraupena hiru urtekoa izango da, eta urte beteko bi luzapen egiteko aukera izango da.

Eta prezioa, BEZa barne, litzateke, 143.167,20 euro urteko, eta hiru urtetarako kontratuarena berriz, 429.501,60 euro.

Horiek lirateke kontratuaren nondik norako nagusiak.

Ba al dago ekarpenik edo iradokizunik?

Hortaz, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak aho batez, erabakitzen du, Gureak Berdea, SLU (B20502613) enpresari esleitzea gizarte- ekimeneko enplegu- zentro berezientzat eta araututako gizarateratze-enpresentzat erreserbaturiko Debako udalerriko soropilak, lorategiak, zuhaitzak eta berdeguneak mantentzeko zerbitzuak emateko kontratua (2021SCOU0025 espedientea)

9.- ESKARI ETA GALDERAK.

Gilen Garcia: Honen bestez osoko bilkuraren azken aztergaira heldu gara, eskariak eta galderak. Zuen da hitza.

Pedro Bengoetxea: Nik bi galdera ditut.

PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE CÉSPEDES, JARDINES, ÁRBOLES Y ZONAS VERDES MUNICIPALES DE DEBA, RESERVÁNDOSE LA PARTICIPACIÓN A CENTROS ESPECIALES DE EMPLEO DE INICIATIVA SOCIAL Y A EMPRESAS DE INSERCIÓN REGULADAS.

Gilen Garcia: El motivo de la inclusión de este asunto en el orden del día por urgencia es que se requirió a la posible empresa adjudicataria la presentación de la documentación correspondiente, y su respuesta se ha recibido tras la convocatoria de la sesión de hoy. Siendo la única empresa presentada, una vez contestado el requerimiento, hemos considerado oportuno tratar el tema de la reunión de hoy, sin esperar a la próxima sesión.

Los datos más significativos de la adjudicación serían estos tres:

Por un lado, la empresa adjudicataria sería Gureak Berdea, SLU.

La duración de contrato será de tres años, con posibilidad de dos prórrogas de un año cada una.

Y el precio, IVA incluido, sería de 143.167,20 euros por año, y el de los tres años del contrato 429.501,60 euros.

Estas serían las principales características del contrato.

¿Hay alguna aportación o sugerencia?

Procedemos a la votación, ¿votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, acuerda, adjudicar a Gureak Berdea, SLU (B20502613) el contrato para la prestación de los servicios de mantenimiento de céspedes, jardines, árboles y zonas verdes del municipio de Deba, reservándose la participación a centros especiales de empleo de iniciativa social y a empresas de inserción reguladas (expediente 2021SCOU0025)

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Gilen Garcia: Con esto hemos llegado al último punto del orden del día, ruegos y preguntas. Tenéis la palabra.

Pedro Bengoetxea: Yo tengo dos preguntas.



DEBAKO UDALA

Lehena, hilerria. Gaur egungo egoera zein den, eta esan zenidatenez, negoziazio bat egon zen, eta, orduan, horri buruzko informazio pixka bat emate nahiko nuke, eta gure aldetik proposatu nahi dugu hilerria ireki behar dela, ate irekien egunak egin, eta lekualdatzea denbora luzeagoz tratatu edo negoziatu beharko da, baina guk hilerria irekitzea eskatzen dugu, hilerria gauza bat delako eta lekualdatzea beste gauza desberdina delako. Uste baitugu hilerrian ditugun zerbitzuak erabiltzeko egin zirela eta Debako herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Eta bigarrena toki-erakunde txikiaren espedienteari buruzkoa da. Ikusten dugunez egoerak ez duela aurrera egiten, eta hemen gure irudia beti Itziarren gaia dela, egoera nola dagoen jakin nahi dugu, eta bestela, guk akordio berri baterako proposamena aurkeztuko dugu, Aldundiak eskatzen duen bezala. Proposamen hau lehenbailehen egingo dugu.

Gilen Garcia: Zuek ba al duzue galderarik?

Eneritz Gomez: Ez

Gilen Garcia: Lehengo galderari buruz, hilerrikoa, era bat ados. Guk ere postura bera daukagu. Hilerri berriaren irekierako espedientearen azken pausuak ematen ari gara. Horretan dabil gaia daraman administrazio teknikariak.

Guk ere uste dugu hor bereizketa bat egin behar dela, azpiegitura berriaren irekiera, eta gaur egungo Debako hilerriaren itxiera eta trasladoa bi kontu desberdin direla.

Horrekin lotuta, herritar talde batekin batu ginen kezka horren harira, eta horixe bera nabarmendu genuen, hor bereizketa bat egin behar dela.

Primera, el cementerio. Cuál es la situación actual, y por lo que me dijisteis, había habido una negociación, entonces informar un poco sobre ello, y hacerlos la propuesta por nuestra parte de que habría que abrir el cementerio, hacer las jornadas de puertas abiertas, y el traslado tratarlo con más tiempo o negociarlo, pero nosotros lo que pedimos es que se abra el cementerio ya, porque la el cementerio es una cosa y el traslado es otra distinta, y pensamos que los servicios que tenemos en el cementerio se hicieron para usarlos y prestar un mejor servicio a los ciudadanos de Deba.

Y la segunda es sobre el expediente de la entidad local menor. Como vemos que la situación no avanza y nuestra imagen aquí es siempre el tema de Itziar, queremos saber cómo está la situación, y sino nosotros vamos a presentar nuestra propuesta de un nuevo acuerdo tal y como exige la Diputación. Esta propuesta la haremos cuanto antes.

Gilen Garcia: Vosotras tenéis alguna pregunta

Eneritz Gomez: No.

Gilen Garcia: Sobre la primera pregunta, la del cementerio, totalmente de acuerdo. Nosotros también tenemos la misma postura. Estamos dando los últimos pasos del expediente de apertura del nuevo cementerio. En ello está inmersa la técnica que lleva el asunto.

Nosotros también creemos que ahí hay que hacer una distinción, la apertura de la nueva infraestructura, y el cierre y traslado del actual cementerio de Deba son dos cuestiones distintas

En este sentido, nos reunimos con un grupo de ciudadanos en torno a esta preocupación y destacamos que ahí hay que hacer una distinción.

Hortaz, eta azken aldian hitz egin dugunaren harira, uste dugu aproposena litzatekeela gure artean, egin behar dugun hilerriaren lan batzordearen bileran, aurrekarien batuketa osoa egin beharko genuela, hau da espedientea zer izan den, eta hori herritarrekin partekatzea jendeak ezagutu behar baitu, bai nola izan den, eta bai zeintzuk diren baldintzak: zenbat leku dagoen, lekua ezaugarri hauek ditu, erabilera hau aurreikusten da. Azken finean, hilerri berriari eta erabilerari dagozkien kontu guztiak argitzea eta herritarrekin partekatzea. Eta horrekin batera, lan batzordean irten zen bezala, bisita gidatuak antolatzea. Horrela, herritarrak informatuta badaude eta, gainera, hilerriaren ezaugarriak in situ ikusiz gero, errazago izango da jarri nahi den funtzionamendua herritarrek barneratzea.

Eta gero, zalantzarik ez, ikusita nola izan den trasladoaren proposamena eta horretarako kontratutako enpresak egin duen lana, hori guztia aparte lantzea lan batzordean, eta hori ikusiko ditugu zeintzuk izan behar diren eman beharreko pausuak. Baina era bat ados egindako proposamenarekin.

Eta bigarren galderari dagokionez, Auzo udalaren modifikazioaren espedienteari dagokionez, ikusi genuen zer bidea abiatu genuen joan den urtean eta zer akordioetara heldu ginen, uste dugu akordioaren bitartez eta gure arteko elkarrizketaren bitartez egin behar dugun kontua dela. Azkenean geure buruari demostratu genuela posizio desberdinetik ere hori zela gure lana, eta gaitasuna badugula akordioak lortzeko.

Egia da, kasu honetan, Aldundiak bere posizioa zein den argi utzi duela, hau da ez zegokiola Aldundiari gure udalerriko kontu batean eskua sartzea, eta berresten zuten guk hartutako akordioaren bide hori.

Hortaz, gogoeta hori bai, baina ez dakit oso ondo nola egin beharko genuen. Nire ustez gai hori Itziarko lan batzordean azertu beharko genuela hiru alderdiok, eta nola ez, Auzo udaleko ordezkariak, eta denon artean ikusi zer pauso eman behar ditugun, eta zein den

Por lo tanto, y en relación a lo que hemos venido hablando últimamente, creemos que lo más apropiado sería que, entre nosotros, en la reunión de la comisión de trabajo del cementerio que tenemos que celebrar, deberíamos hacer una recopilación completa de los antecedentes, es decir, qué ha sido el expediente, y compartirlo con la ciudadanía, ya que debe ser conocido por la gente, tanto cómo ha sido, como cuáles son las condiciones: cuánto espacio hay, las características del lugar, el uso previsto. En definitiva, clarificar y compartir con la ciudadanía todas las cuestiones relativas al nuevo cementerio y su uso. Y con ello, como se trató en la comisión de trabajo, organizar visitas guiadas. De esta forma, si la ciudadanía está informada y, además, se observan in situ las características del cementerio, se facilita la interiorización del funcionamiento pretendido.

Y luego, sin duda, visto cómo ha sido la propuesta de traslado y el trabajo realizado por la empresa contratada para ello, trabajarlo por separado en la comisión de trabajo, donde veremos los pasos a dar. Pero de acuerdo con la propuesta realizada.

Y en cuanto a la segunda cuestión, respecto al expediente de modificación de la entidad local menor, vimos el camino que pusimos en marcha el año pasado y los acuerdos a los que llegamos, creemos que es una cuestión que debemos hacer a través del acuerdo y del diálogo entre nosotros. Al final nos demostrábamos que, aún partiendo de posiciones diferentes, esa era nuestra labor, y que tenemos capacidad de llegar a acuerdos.

Es cierto que, en este caso, la Diputación ha dejado clara su posición, es decir, que no le correspondía a la Diputación intervenir en un asunto de nuestro municipio, y ratificaban la vía del acuerdo entre nosotros.

Entonces, esa reflexión sí, pero no sé muy bien cómo deberíamos hacerlo. Creo que este tema deberíamos de analizarlo en la comisión de trabajo de Itziar entre los tres partidos, y cómo no, los representantes de la entidad local menor, y ver entre todos qué pasos debemos



alde bakoitzaren gaur egungo postura, eta zein postura bateratua. Eta ez dakidana da zein litzateke hori guztia egiteko foro egokiena, Itziarko lan batzordean, edo Udalak modifikazio espedienteari berriro heltzea.

Pedro Bengoetxea: Uste dut bi gauza desberdin direla. Gauza bat da guk aldaketa bat egin genuela tokiko erakunde txikian, azkenean, arrazoi desberdinengatik bakoitza finkatuz joan da. Agian gu ere geldirik egon gara, baina Aldunditik ere ez dugu inolako interesik ikusi hori egiteko, akatsak bilatzeko izan ezik. Guk apustua egin dugu, eta, gainera, gure jarrera da, Aldundiak jarrera bat hartzea nahi dugulako, betiere Udalean proposamena aurkezteko gehiengo nahikoa badago. Eta beste gauza bat da Itziarrek nola funtzionatzen duen negoziatzearen aurrean dugun jarrera. Guk beti egingo dugu bide horren alde, eta beti horrela egin dugula uste dugu.

Baina ulertu behar duzue gu jarrera batekin gaudela hemen, eta jarrera hori atzeratzen ari dela, eta, aldi berean, ikusten dugu Aldundiak ere ez digula gehiegi lagundu. Beraz, ikusten badugu horrek ez duela aurrera egiten, beste erabaki-proposamen bat aurkeztu behar diogu Osoko Bilkurari, Aldundiak dioen bezala, toki entitate txikia berrikusteko, hemendik ateratzen dena Aldundira eraman beharko da edo dena delakora.

Guk bi gauzak bereizten ditugu, ez dakit gure jarrera ulertu duzun.

Gilen Garcia: Ulertzen dut aipatzen dituzun bi bide horiena, baina nik bide batez ari naiz, espediente kudeaketarena, hau da, nik ulertzen dutena eta egindako bidea ikusita, iruditzen zait, oraintxe bertan, logikoena litzatekeela berriro ere batzorde horretan

dar, cuál es la posición actual de cada una de las partes y cuál es la postura conjunta. Y no sé cuál sería el foro más adecuado para ello, en la comisión de trabajo de Itziar, o que el Ayuntamiento retomara el expediente de modificación.

Pedro Bengoetxea: Creo que son dos cosas distintas. Una cosa es que nosotros hicimos una modificación de la entidad local menor que al final, por distintas razones cada uno se ha ido afinando. A lo mejor nosotros también hemos estado parados, pero desde Diputación tampoco hemos visto ningún interés en hacer salvo en buscar errores. Lo que nosotros hemos apostado, y además es nuestra postura, en el sentido de que queremos que Diputación se posiciona, siempre que en el Ayuntamiento haya mayoría suficiente para presentar la propuesta. Y otra cosa es nuestra postura ante la negociación de cómo funciona Itziar. Nosotros siempre vamos a apostar por esa vía y creemos que siempre lo hemos hecho así.

Pero tenéis que comprender que nosotros estamos aquí con una postura, y esa postura se está retrasando y a la vez vemos que Diputación tampoco nos ha ayudado demasiado. Entonces, si vemos que esto no avanza, tenemos que presentar otra propuesta de acuerdo al Pleno, tal y como dice la Diputación, para revisar la entidad local menor, Lo que salga de aquí habrá que llevarlo a Diputación o lo que sea

Nosotros separamos las dos cosas, no sé si has entendido nuestra postura.

Gilen Garcia: Entiendo las dos vías que mencionas, pero yo me refiero a la gestión del expediente, es decir, a lo que yo entiendo y a la vista del camino recorrido, creo que ahora mismo lo lógico sería volver a sentarse en esa comisión, nuestras posturas, lo que has dicho,

esertzea, gure posturak, esan duzuna, bakoitzaren posizioa azaldu, eta orduan, denon artean, eta bakoitzaren posizio horietatik berriro ere elkarrizketa abiatzea, baina espedientearen kudeaketari dagokionez. Nahiz eta eskumena Udalarena izan, hau da eskumena duen organoa, Auzo udalarekin egin den bidea ikusita, iruditzen zait elkarrizketa hau haiekin abiatu behar dugula, elkarri esan behar diogula esan beharrekoak, azken finean, elkarri eragingo dion gai bat delako. Eta bertan, bakoitzak bere postura azaldu dezala, zeren postura horien arabera lor daitekeen gehiengoak edo kontsentsuak markatuko dizkigute egin beharreko bidea, hau da espedientearekin jarraitzea bere horretan, edo espediente bertan behera uztea, edo bestelako akordio bat erdiestea, hitzarmenarekin egin genuen bezala. Eta, orain arte gauzak nola egin ditugun ikusita, uste dut lan batzordea dela foru egokiena gai hau lantzeko, eta, horrela Auzo udalaren postura ere ezagutzeko aukera izango dugu, gaur egungo postura, ibilbide bat egin ondorengo postura

Ane Egidazu: Gure ustez bide logikoena hori da. Galdetzen genuen pendiente dagoen gaia delako. Orduan batzordearen deialdia luzatu eta gai horri heldu. Garbi dagoena da Osoko bilkura ez dela toki egokiena eztabaidan hasteko, orduan batzordearen deialdia luzatzen baduzu, ondo. Guk nahi duguna da gai hau mahai gainean jarri, pendiente dagoelako.

Gilen Garcia: Era bat ados pendiente gaitan dago. Hala ere, akordioa nabarmendu nahi nuen horregatik hitzarmenaren lanketa eta bide hori jarraitzea. Baina, bai era bat logikoa da, behin baino gehiagotan irten den gaia da eta pentsatzen dut EAJk ere bere adostasuna azalduko duela gai honi heltzeko.

Eneritz Gomez: Bai. Bai noski, baina esan dugun foro horretan.

Gilen Garcia: Orduan, hementxe bertan ni konprometitzen naiz Itziarko Batzordea deitzera, eta gaia jorratzen hasteko, Arantza Egañari. Auzo alkateari, komentatuko diot proposamen hau egon dela eta helduko diogu

explicando la posición de cada parte, y entonces, entre todos, y desde la posición de cada parte, volver a abrir el diálogo, pero en lo que respecta a la gestión del expediente. A pesar de que la competencia es del Ayuntamiento, es decir, del órgano que tiene la competencia, a la vista del camino que se ha hecho con la entidad local menor, creo que tenemos que iniciar este diálogo con ellos, decirnos mutuamente lo que tengamos que decir, porque, en definitiva, es un tema que nos va a afectar mutuamente. Y que cada parte explique su postura, porque la mayoría o el consenso que se pueda alcanzar en función de esas posturas nos marcarán el camino a seguir, es decir, continuar con el expediente en sí mismo, o suspenderlo, o llegar a un acuerdo diferente, como hicimos con el convenio. Y, a la vista de cómo hemos hecho las cosas hasta ahora, creo que es la comisión de trabajo el foro más adecuado para trabajar este tema, y así podremos conocer también la postura de la entidad local menor, la postura actual, la postura después de haber realizado un recorrido.

Ane Egidazu: En nuestra opinión ése es el camino más lógico. Preguntábamos porque es un tema pendiente. Realizar la convocatoria de la comisión y abordar este tema. Lo que está claro es que el Pleno no es el lugar idóneo para iniciar el debate, si entonces realizas la convocatoria de la comisión, bien. Lo que queremos es poner este tema encima de la mesa porque está pendiente.

Gilen Garcia: Totalmente de acuerdo, está entre los temas pendientes. No obstante, por eso quería destacar el acuerdo y seguir ese camino. Pero sí es lógico, es un tema que ha salido en varias ocasiones y supongo que el PNV también expondrá su conformidad para abordar este tema.

Eneritz Gomez: Sí, por supuesto, pero en ese foro que hemos comentado.

Gilen Garcia: Entonces, aquí mismo me comprometo a convocar la Comisión de Itziar, y empezar a tratar el tema con Arantza Egaña. Le comentaré a la alcaldesa pedánea que ha habido esta propuesta y vamos a abordar el



gaiari.

Eta ez badago besterik amaitutzat joko dugu osoko bilkura hau.

Horrenbestez, beste aztergairik ezdagoenez, 19:35ean amaitzen da Osoko Bilkura.

tema.

Y si no hay más asuntos, daremos por terminada esta sesión del pleno.

Sin más temas que tratar, a las 19:35 horas, finaliza el Pleno.

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Gilen Garcia Boyra
Alkatea



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2022/01

EGUNA: 2022/01/27

I. Eranskina

HERRIKO GUNE ARAUTUETAN IBILGAILUAK APARKATZEAN JABEGO PUBLIKOA ERABILI EDO APROBETXATZEARI BURUZKO ORDENANTZA (TAO)

Udalak, bere eskumenen barruan, herritarren beharrak betetzen lagungarri izan daitezkeen era guztietako ekintzak bultzatu eta nahi hainbat herri-zerbitzu eskaini ditzake.

Aparkamendu arloan dagoen eskariari erantzun nahi izateagatik, ingurumenaren kalitatean duen zuzeneko eraginagatik eta herri garraioen eta oro har trafikoaren arintasunean duen ondorioagatik, aparkamendua arautzeko orduan, beharrak, eskura dauden espazioen erabilera eta diru aldetik horrek dakartzkien ondorioak herritar guztien artean zuzen banatzeko moduko irizpideak kontuan hartzen saiatu behar du.

Hiriko aparkamendu zerbitzua hobeto arautzearen ondorengo arauak emango dira:

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea Udalak araututako hiriko aparkamendu zerbitzurako arauak ezartzea da.

2. artikulua.

Udalak araututako aparkamendu sistema Udalaren herri zerbitzutzat joko da.

3. artikulua.

Ordenantza honek araututako sektoreak honakoak dira:

1. sektorea: Gudarien plaza.
2. sektorea: Merkatuko aparkalekua.
3. sektorea: Nafarroa plaza.
4. sektorea: Calbeton Zumardia, Markiegi, Marinel, Bastinuixa eta Montreal.

ACTA del PLENO MUNICIPAL

SESIÓN Nº: 2022/01

DÍA: 27/01/2021

Anexo I

ORDENANZA REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL MEDIANTE EL ESTACIONAMIENTO DE VEHÍCULOS EN ZONAS REGULADAS DE LA VILLA (OTA)

El municipio, en el ámbito de sus competencias, puede promover toda clase de actividad y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades de la ciudadanía.

Es por lo que, el atender a la demanda de estacionamiento, así como la clara influencia de este en la calidad ambiental y su repercusión en la fluidez de los transportes públicos y del tráfico en general, lleva a tratar el reglamento de aparcamiento obedeciendo a criterios de justa distribución de necesidades, de uso de los espacios disponibles y de repercusiones económicas entre la ciudadanía.

En aras de una mejor regulación del servicio público de estacionamiento, se promulgan las siguientes normas:

Artículo 1.

Es objeto de la presente ordenanza establecer las normas del servicio público de estacionamiento regulado.

Artículo 2.

El sistema municipal de estacionamiento regulado tendrá la consideración de servicio público local.

Artículo 3.

Los sectores regulados por esta Ordenanza son los siguientes:

- Sector 1. Gudarien plaza.
- Sector 2. Parking Mercado.
- Sector 3. Nafarroa plaza.
- Sector 4. Alameda Calbetón, Markiegi, Mariñel, Bastinuixa, Montreal.



5. sektorea: Artzabalgo aparkalekua.

6. sektorea: Herri gunea - Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza eta Marinel-Arrantzale kaleak.

7. sektorea: Alde Zaharra – Foruen plaza, Plaza zaharra, Ifar kale, Itur kale, Lersundi, San Roke, Ostolaza, Portu eta Sokagin kaleak.

4. artikulua.

4.1.- 1. sektorean asteko egun guztietan 09:00etatik 20:00etara, urte osoan, arautuko da ibilgailuen aparkamendua, larunbat arratsaldetan (13:00etatik aurrera), igande eta jaiegun izan ezik.

4.2.- 2. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua:

- Neguan: aste osoan zehar 09:00etatik 20:00etara, larunbat arratsalde (13:00etatik aurrera), igande eta jaiegunetan izan ezik.
- Udan: aste osoan zehar, 09:00etatik 20:00etara.

Ordenantza honen ondorioetarako, Negu garaiatzat urriaren 1etik apirilaren 30era bitarteko aldia hartuko da; eta uda garaia, berriz, maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartekoari.

4.3.- 3. eta 4. sektoreetan horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua:

- Maiatza: larunbat, igande eta jaiegunetan 09:00etatik 20:00etara.
- Ekaina, uztaila, abuztua eta iraila: aste egun guztietan 09:00etatik 20:00etara.

4.4.- 5. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua: Ekaina, uztaila, abuztua eta irailean, asteko egun guztietan

Sector 5. Parking Artzabal.

Sector 6. Zona Urbana - Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza y Mariñel-Arrantzale.

Sector 7. Parte Vieja - Foruen plaza, Plaza zaharra, Ifar kale, Itur kale, Lersundi, San Roke, Ostolaza, Portu y Sokagin.

Artículo 4.

4.1.- En el sector 1, se regulará el aparcamiento de vehículos todos los días de la semana de 9:00 a 20:00 horas, excepto sábados por la tarde (de 13:00 en adelante), domingos y festivos.

4.2.- En el sector 2, se regulará el estacionamiento de vehículos:

- Invierno: Todos los días de la semana de 9:00 a 20:00 horas, excepto sábados por la tarde (de 13:00 en adelante), domingos y festivos.
- Verano: Todos los días de la semana de 9:00 a 20:00 horas.

A efectos de la presente Ordenanza, se entiende por temporada de invierno el período comprendido entre el 1 de octubre y el 30 de abril; y por temporada de verano, el período del 1 de mayo al 30 de septiembre.

4.3.- En el sector 3 y 4, se regulará el estacionamiento de vehículos:

- Mes de mayo: todos los sábados, domingos y festivos, de 9:00 a 20:00 horas.
- Meses de junio, julio, agosto y septiembre: todos los días de la semana, de 9:00 a 20:00 horas.

4.4.- En el sector 5, se regulará el estacionamiento de vehículos de la siguiente manera: Junio, julio, agosto y septiembre,

09:00etatik 20:00etara.

4.5.- 6. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen aparkamendua: Maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta irailean, asteko egun guztietan, 24 orduz.

4.6.- 7. sektorean horrela arautuko da ibilgailuen sarbidea: Urte osoan: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 13:00etara, larunbatetan 08:00etatik 12:00etara, eta igande eta jaiegunetan itxita.

5. artikulua.

Ordenantza honetan txartel mota desberdinetarako ezarritakoa alde batera utzi gabe, adierazitako tokietan aparkatzeko, erabiltzaileek beharrezko aparkaleku-tiketa hartu beharko dute horretarako ipiniko diren makinetan. Udalak onartutako prezioetan eskuratu ahal izango dira.

5.1.- 1. sektorean 30 minutuko aparkaldia egin ahal izango da dohainik.

5.2.- 2. sektorean 2 gune bereiziko dira:

- Aparkaldi luzeko eremua: urte osoan zehar bertakoen txartela duten ibilgailuentzat izango da, dohainik eta denbora mugarik gabe.
- Aparkaldi motzeko eremua: gehienez 3 orduko aparkaldia baimenduko da eta erabiltzaile guztiek txartela atera beharko dute. 3 orduko iraupena ez da egun batetik bestera igaroko, eta tiketa egun berean baliogabetuko da.

Gune horretan aparkatzea doakoa izango da bertakoen eta udatiarraren txartela duten ibilgailuentzat. Hala ere, 09:00etatik 18:00etara dagokion tiketa atera beharko dute eta aparkaldia ezin izango da 3 orduetik gorakoa izan.

5.3.- 3. eta 4. sektoreetan tiketak 30 minutuko frakzioetan lortu ahal izango dira, gehienez 5 orduz.

Bertakoen eta udatiarren txartela duten

todos los días de la semana de 09:00 a 20:00 horas.

4.5.- En el sector 6, se regulará el estacionamiento de vehículos de la siguiente manera: Mayo, junio, julio, agosto y septiembre): Todos los días de la semana, 24 horas.

4.6.- En el sector 7, se regulará el acceso de vehículos de la siguiente manera: Todo el año: de lunes a viernes de 08:00 a 13:00, sábados de 08:00 a 12:00, y domingos y festivos cerrado.

Artículo 5.

Sin perjuicio de lo establecido en esta Ordenanza para los distintos tipos de tarjetas, para estacionar en las áreas delimitadas, las personas usuarias deberán proveerse del correspondiente ticket de aparcamiento, que les será proporcionado por las máquinas expendedoras, según los precios aprobados por este Ayuntamiento.

5.1.- Se establece como tiempo de estacionamiento el de 30 minutos, gratuito, en el sector 1.

5.2.- El sector 2, se divide en dos zonas:

- Zona de estacionamiento prolongado: se destinará gratuitamente y sin límite de tiempo a los vehículos con tarjeta residente durante todo el año.
- Zona de aparcamiento corto: se permitirá un estacionamiento máximo de 3 horas y todos los usuarios deberán sacar su ticket. En las 3 horas de estacionamiento no habrá salto de día, y el ticket quedará anulado el mismo día de su expedición.

El estacionamiento en esta zona será gratuito para aquellos vehículos con tarjeta de residente y veraneante. No obstante, entre las 09:00 y las 18:00 horas deberán sacar el ticket correspondiente y el tiempo de estacionamiento no podrá exceder de 3 horas.

5.3.- En los sectores 3 y 4, se podrán obtener tickets por fracciones de 30 minutos, hasta un máximo de 5 horas.

En el sector 3, los vehículos con tarjeta



ibilgailuek 3. sektorean egun osoko txartela eskuratu ahal izango dute, eta 4.ean dohainik eta denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute.

5.4.- 5. sektorean bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuek doan eta denbora-mugarik gabe aparkatu ahal izango dute. Gainontzeko erabiltzaileek tiketa eskuratu beharko dute 09:00etatik 20:00etara.

Autokarabanez gehienez 72 orduko egonaldia egin ahal izango dute, eta karabanak aparkatzea debekatuta egongo da.

5.5.- 6. sektorean bertakoen txartela duten ibilgailuak baimenduko dira, baita txartel bereziak (lan-txartela, irakasle txartela, gremioen aldi baterako baimen-txartela, ...) dituztenak ere, denbora mugarik gabe eta doan.

Uztailean eta abuztuan, eskoletako patioetan, bertakoen eta udatiarren txartela duten ibilgailuak baimenduko dira.

5.6.- 7. sektorean zamalanetarako ibilgailu baimenduak, mugikortasunagatik edo irisgarritasunagatik baimendutako herritarren ibilgailuak eta gremioen ibilgailuak (aldi baterako edo beharra denean) izango dute sarbide eskubidea, aurrez Udaltzaingoa baimena eskatuta.

6. artikulua.

Txartela ibilgailuaren haizetakoaren eskuineko behealdean ipini beharko da, kanpotik erraz eta ongi ikusteko moduan. Txartela kristalean itsatsita egotea ezinbestekoa da, bestela, ez du baliorik izango.

7. artikulua.

Aparkamenduaren iraupena ez da aparkatze-tiketean adierazitakoa baino luzeagoa izango. Gunearen arabera aldatu egingo da iraupena.

residente o veraneante podrán obtener el ticket de día completo, y en el 4 podrán aparcarse gratis, sin ticket ni límite de tiempo.

5.4.- En el sector 5, los vehículos con tarjeta de residente o veraneante podrán estacionarse de forma gratuita, sin ticket ni límite de tiempo. El resto de las personas usuarias deberán obtener el ticket entre las 09:00 y las 20:00 horas.

Las autocaravanas podrán realizar una estancia máxima de 72 horas, y se prohíbe el estacionamiento de caravanas.

5.5.- En el sector 6, se autorizarán los vehículos con tarjeta de residente, así como los que tengan tarjetas especiales (tarjeta laboral, tarjeta de profesorado, tarjeta de permiso puntual para gremios, ...), por tiempo indefinido y de forma gratuita.

Se autorizarán los vehículos con tarjeta de residente o veraneante en los patios escolares durante julio y agosto.

5.6.- En el sector 7 se les permitirá la entrada a vehículos de carga y descarga, a vehículos de ciudadanos o ciudadanas autorizadas por problemas de movilidad o accesibilidad y a vehículos de gremios (de manera puntual o en caso de necesidad), con previa solicitud en la Policía Municipal.

Artículo 6.

La tarjeta deberá colocarse en la parte derecha inferior del parabrisas del vehículo de forma fácilmente visible desde el exterior. Es imprescindible que la tarjeta esté pegada al cristal, en caso contrario carecerá de validez.

Artículo 7.

La duración del estacionamiento no podrá exceder de la indicada en el ticket de estacionamiento. La duración variará en

Adierazitako denbora pasa ondoren, ibilgailua dagoen sektoretik lekuz aldatu beharko da, eta bi ordu igaro arte ezingo da lehengo sektorera itzuli.

8. artikulua.

Zamalanetarako guneak horretarako erabiliko dira baimendutako ordutegian eta berezkoak dituzten baldintzetan, eta txartelik gabe aparkatu ahal izango dute. Zamalanetarako ordutegitik kanpo, gune horiek arauotan aurreikusitakoaren menpe geratuko dira.

9. artikulua.

Indarrean jarraituko dute erasandako guneak kale bakoitzean ezarrita dauden seinale mugatzaile bereziek (gelditzeko debekua, bus geltokia, taxiak, zamalanetarako guneak, motoentzat zehaztutako guneak, ...).

10. artikulua.

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoari jarraituz, Ordenantza honetan ezarritako aparkatzeko eta gelditzeko edozein arau urratuz gero, dagokion zehapenez gain, ibilgailua aparkalekutik kendu edo ibilgetu ahal izango da gidaria identifikatu arte.

11. artikulua.

